



ATEAK ZABALTZEKO JARDUNALDIA

PIANOA

2010eko martxoaren 2a

2010eko martxoaren 2an Musikenek Ateak Zabaltzeko jardunaldia antolatuko du Piano espezialitatean. Bertan parte hartuko dute espezialitateko irakasle titularrek, hain zuzen ere Gustavo Díaz Jerez, Emmanuel Ferrer-Laloe, Ricardo Requejo, Marta Zabaleta eta Miguel Ituartek.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako piano ikasketak egiteko interesa duten ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten piano ikasleak

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Zein da jardunaldien helburua?

- Ikastegiko ikasleekin musikenen egiten den lana erakustea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenak bideratzea, gainditu beharreko sarrera-probak direla eta.
- Proba hori gainditzeko ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaindituz gero ikasleek zein ikasketa-plan izango duten azaltzea.

Zer egin behar dut joateko?

Jardunaldira etorri ahal izateko **erreserba aurrez egitea** beharrezkoa da, **izena emateko orriaren bitartez**.

Zein da lan-egitasmoa?

ASTEARTEA, 2010eko martxoaren 2a

9.00. Ateak zabaltzeko jardunaldiaren aurkezpena. Parte hartzaile guztiak musikeneko gela batean bilduko dira. Bertan, Ikasketa Buruak eta Piano Saileko Zuzendariak hitzalditxo bat eskeiniko dute zehazki espezialitateari dagozkion gaiei lotuta (diseinua, ibilbideak, sarrera-probak, metodologia...)

10.00-12.00 **Miguel Ituarte** irakaslearen eskolak Musikeneko ikasleei.

10.00-11.30 **Marta Zabaleta** irakakasleak eskolak emango dizkie jardunaldian izena eman duten ikasle aktiboak.

12.00-14.00 **Gustavo Díaz Jerez** irakaslearen eskolak Musikeneko ikasleei.

Bazkaltzeko etenaldia.

15.00ak eta 19.00ak bitartean ikastegiko irakasleek ikasle aktiboak, Musikeneko etorkizuneko ikasleak, entzun eta bideratuko dituzte.

15.00-17.00 **Emmanuel Ferrer-Laloe** irakaslearen eskolak jardunaldi honetan ikasle aktibo modura izena eman duten ikasleentzat.

17.00-19.00 **Ricardo Requejo** irakaslearen eskolak jardunaldi honetan ikasle aktibo modura izena eman duten ikasleentzat.

19.15. Piano entzunaldia Musikeneko ikasleen eskutik.

20.30 Jardunaldiaren amaiera

(Jardunaldiak dirauen bitartean ikasketa-planeko edo gustoko duten ibilbideko irakasgaien eskoletara ere sartzeko aukera izango da, irakasle titularrekin kontaktua egiteko)

Irakasleak:

Ricardo M.Descalzo (Piano Garaikidea)

Daniel Del Pino (Bi pianorekin errepertorioa)

Javier González Sarmiento (Erreperitazioa)

Irini Gaitani (Kamara Musika)

Sophia Unsworth (Pianoaren orkestra errepertorioa)

Non dago Musikene?

MUSIKENE

Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Miramar Jauregia

Mirakontxa, 48

20007 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943 316778

Faxa: 00 34 943 316916

E-maila: info@musikene.net

Mapan ikusi nahi baduzu:

<http://maps.google.es/maps?hl=es&tab=wl&q=palacio%20miramar>

Informazio gehiago behar dut...

Egin kontaktua zuzenean gurekin eta zure zalantzak argituko ditugu: jperez@musikene.net